BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

5072

EBAZPENA, 2013ko urriaren 14koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, EAEko itunpeko ikastetxe pribatuei Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialaren bidez irakasteko 2013-2014 ikasturterako aurreikusitako diru-laguntzen kopuru osoa aldatzen duena.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko uztailaren 30eko Aginduaren 12. artikuluak ezartzen duenaren arabera (2013ko irailaren 2ko EHAA), Aginduak aipatzen dituen laguntzak finantzatzeko 657.160 euro izango dira, EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-kredituen kontura.

Bestetik, aipatutako artikuluaren bigarren paragrafoak dioenez, aurreikusitako kopuru osoa areagotu egin daiteke eskatutako dirulaguntzen guztirako zenbatekoa kontuan harturik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean beste laguntza-egitasmo batzuk bideratu ondoren aurrekontuak ahitu gabe geratu badira. Adierazitako aldaketa diru-laguntzak ebatzi baino lehen egin behar da eta aipatutakoaren berri eman beharko da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordearen ebazpenaren bitartez.

Diru-laguntza horiek emateko deialdiaren ebazpenak berekin dakartzan behar ekonomikoak ikusita, aurrekontu-programan kreditua edukita, eta lehen aipatutako 2013ko uztailaren 30eko Aginduaren 12. artikuluari jarraituta, honakoa

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Laguntza horiek finantzatzeko 2013-2014 ikasturteko deialdian aurreikusitako diru-kopuru osoari 4.887,82 euro gehitzea; beraz, laguntza horiek finantzatzeko 662.047,82 euro izatea.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 14a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
OLATZ GARAMENDI LANDA.